

BALOREZKO PROPOSAMENA

Gure proiektuaren helburua, beharra dutenei -arazo ekonomikoak dituztelako edo etxebizitzarik ez dutenei- higieze zerbitzu jasagarri bat eskaintzea da. Udalak eskainitako lokal batean, higiezerako ezinbestekoak diren tresnak jarriko dugu: garbigailuak, dutxak eta higiezerarekin lotutako beste hainbat. Aurretik aipatutakoak, naturari ahalik eta mesede handiena egingo dioten produktuak izango dira. Adibidez, plastikoa murrizteko, berrerabilitako egurra erabiliko dugu. Gainera, xaboi industrialak asko kutxatzen dutenez, xaboi ekologikoa erabiltzea pentsatu dugu. Bestetik, ahalik eta elektrizitate gutxien erabiltzen saiatuko gara.

Zerbitzu hau erabiltzeko, gure bezeroek izena eman beharko dute, eta orduan, bezero bakoitzak bonu bat jasoko du. Bonua, bezeroaren beharraren arabera izango da. Esaterako, pertsona bakoitzaren egoera aztertuko dugu, eta horren arabera, lokaleko tresnen erabilerarako duen aukera ezberdina izango da. Adibidez, etxean dutxarik ez duen pertsona batek, lokaleko dutxak erabiltzeko aukera handiagoak izango ditu. Berriz, hori errezago eskuratu ahal duen pertsona baten aukerak, urriagoak izango dira.

Gure proiektuaren balorea, kuantitatiboa eta kualitatiboa da. Alde batetik, balore kuantitatiboa du, bonuak eta herriko dendetatik jasotako den borondatezko dirua balore neurgarriak dira. Bestalde, balore kualitatiboa ere aurki dezakegu, bezeroen egoera ekonomikoa kontutan hartzen baitugu.

ZaLaBi proiektua, gainerako beste proiektu batzuen antzerakoa izan arren, baditu horiengatik desberdintzen dituen ezaugarri batzuk. Batik bat, jasagarritasuna eta herritarren ongizatea bultzatzen dugu, dohainiko zerbitzu bat da, herriko ekintzaileentzat (xaboi ekologikoa ekoizten dutenak) beraien produktuak zabaltzeko aukera bat da... Gainera, bigarren eskuko produktuak (erabilgarria suertatu daitekeen edozein produktu) erabiliko dira.

ZaLaBi